

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TABERNA ETA KAFETEGIKO JARDUERA EKONOMIKOAREN KONTROLA	Iraupena	90
		Berariazkoa	
Kodea	UF0256		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Jatetxe-arloa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak.	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Taberna-kafetegiaren kudeaketa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Tabernan eta kafetegian sistema informatikoak erabiltzea	Iraupena	30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1050\_2 TABERNA-KAFETEGIA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Jatetxe-arloko sektorea aztertzea, eta, bereziki, taberna-kafetegiko jarduera, establezimendu horiek beste enpresa batzuekin dituzten harremanak aintzat hartuz.
- EI1.1 Jatetxe-arloko establezimendu-motak bereiztea, honako hauek kontuan izanda: oinarrizko ezaugarriak, oinarrizko prozesuak, eskaintza gastronomiko eta edari-motak, bezero-tipologiak eta aplikatu beharreko Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak.
- EI1.2 Beste enpresa batzuekiko kanpo-harremanak deskribatzea.
- EI1.3 Ekoizpen- edo zerbitzu-jardueretan sortzen diren kanpo- eta barne-dokumentuak, informazio-mota eta zirkuituak deskribatzea.
- A2: Taberna-kafetegi txiki xumeen bideragarritasun-proiektuak egitea, enpresa txikiak sortzeko eta martxan jartzeko informazio-kanalak erabiliz.
- EI2.1 Enpresa, enpresaburu eta merkataritza-establezimendu kontzeptuak bereiztea.
- EI2.2 Enpresa txikiak eratzeari, sortzeko diru-laguntzei eta bestelako laguntzei, finantziario-iturriei, betebeharrak fiskalei eta enpresa-bideragarritasuna duten proiektuei lotutako zuzemenei buruzko informazioa ematen duten estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokian tokiko erakundeak eta profesionalak identifikatzea.
- EI2.3 Enpresaburu-mota juridiko bakoitzerako identifikatutako lege-ezaugarriak eskematikoki jasotzea konparazio-koadro batean.
- EI2.4 Enpresa txikiak sortzearekin, eratzearekin eta martxan jartzearekin lotutako lege-eskakizunak, zuzemena, dokumentuak eta erakundeak eskematizatzea, jarduera ekonomikoaren eta baliabideen arabera hautatutako enpresaburuaren figura juridikoarekin bat etorritik.
- EI2.5 Proiektu-dokumentu bat egitea, eta han jasotzea negozio-ideiaren aurkezpena eta justifikazioa, merkatu-azterketa, marketing-plana, antolamendua, baliabideak eta establezimenduaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa.
- A3: Elikagaiak eta edariak hornitzeko sistemak aztertzea, eta dagozkien eragiketak egitea, hautatutako sistemak erabiliz.
- EI3.1 Taberna-kafetegiko lanak egiten dituzten enpresa txiki-tako merkataritza-egoera tipikoen konpontzeko balio duten hornitzaileekiko harremanetarako teknikak aztertzea.
- EI3.2 Taberna-kafetegi bateko eskaintza gastronomiko eta edari-eskaintza jakin batzuei lotutako jeneroaren kanpo-hornikuntzarako beharrak kalkulatzeko, eta eskaera-aginduak idazteko.
- EI3.3 Elikagaiak eta edariak hartzea, eta, ondoren, biltegiatzea eta banatzea.
- EI3.4 Biltegiatze sistemak deskribatzea, ekipamendu-beharrak, ordenatzeko irizpideak, abantaila konparatiboak eta biltegiatzearekin erlazionatutako dokumentazioa adieraziz. EI3.5 Elikagaiak eta edariak beren izaeraren eta motaren arabera dituzten biltegiatze-beharrak identifikatzea.
- EI3.6 Kontrol-eragiketak egitea, kalteak edo galerak detektatzea, eskatutako eta jasotako jeneroaren kantitateen eta kalitateen artean desbideratzeak detektatzea, eta desbideratzeko horiek konpontzeko neurriak proposatzea.
- EI3.7 Biltegiatze eragiketak egitea, biltegiatze edo berehala kontsumitzeko jeneroa eta kontrol-ekipoak araudi higieniko-sanitarioa betez manipulatzeko.
- EI3.8 Biltegi kontrolatzeko behar diren dokumentuak eta liburuak erabiltzea.
- A4: Taberna-kafetegiko eskaintza gastronomikoaren eta edarien prezioak zenbatzea, lehengaien eta gainerako jeneroaren kostuak kalkulatzeko.

- EI4.1 Aurrekontuak eta prezioak lehengaien eta gainerako jeneroaren kostuen arabera finkatzeko metodoak deskribatzea.
- EI4.2 Ezaugarriak behar bezala definituta dauzkaten taberna-kafetegiko zenbait eskaintza gastronomikotatik eta edaritatik abiatuta:
- Eskaintzen diren produktuen eta lehengaien kostuak lortzea, kalkuluak eginez, eta zer dokumentu kontsultatu diren adieraztea.
  - Dokumentazio espezifiko batzea.
  - Taberna-kafetegiko eskaintza gastronomikoaren eta edarien prezioak finkatzea.
- EI4.3 Dokumentazioa eta informazioa kontserbatzean segurtasunak duen garrantzia baloratzea, zorrotasunez tratatuz.

- A5: Taberna-kafetegiko jarduerarako beharrezkoak diren kudeaketa- eta kontrol-sistemak eta -prozesuak garatzea.
- EI5.1 Taberna-kafetegiko jarduerara egokitzen diren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko sistemak eta prozesuak identifikatzea.
- EI5.2 Ustezko datuak abiapuntutzat hartuta, ekoizpen-egunkaria eta kutxa-itxiera egitea.
- EI5.3 Taberna-kafetegian fakturatzeko, kobratzeko, ekoizpen-egunkaria itxeko eta kutxa likidatzeko prozesuak ikuskatzeko metodo errazak aplikatzea.
- EI5.4 Tabernako jarduerara eta ekoizpen-maila desberdinetara ongien egokitzen diren ekoizpena eta zerbitzua kudeatzeko sistemak eta prozesuak identifikatzea.
- EI5.5 Taberna-kafetegiko jarduerara eta ekoizpen-maila desberdinetara ongien egokitzen diren kudeaketa-sistemak eta -prozesuak identifikatzea.
- EI5.6 Taberna-kafetegiaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko informazioa emateko egokiak diren informazioa antolatzeako sistemak konparatzea eta aplikatzea.
- EI5.7 Zerbitzuaren kalitatea kudeatzeko eta kontrolatzeko metodo errazak aplikatzea.

## Edukiak

- 1. Taberna-kafetegia: establezimendua, negozioa eta enpresa:**
  - Taberna-kafetegia establezimendu gisa: establezimendu-motak.
  - Taberna-kafetegiaren marketin-plana. Merkatu-azterketa.
- 2. Taberna-kafetegiaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa:**
  - Eratzeari eta martxan jartzeari lotutako zuzemenak eta dokumentazioa.
  - Taberna-kafetegiaren organigrama. Langileak aukeratzea. Profil profesionalak.
  - Enpresa, enpresaburua eta merkataritza-establezimendua.
  - Enpresaburu-mota juridikoa: banakakoa eta soziala.
  - Enpresa, enpresaburua eta merkataritza-establezimendua bereiztea.
  - Banakako enpresaburua eta enpresaburu soziala.
  - Enpresa-jardueraren hasierari eta garapenera lotutako prozesu eta prozedura ekonomiko-administratiboen gaineko aholkuak ematen dituzten estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokian tokiko erakundeak eta profesionalak.
  - Enpresa txikiak sortzeak eta haiek ongi funtzionatzeak estatuko ekonomiarako eta gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko zer nolako garrantzia duten baloratzea.
- 3. Taberna-kafetegiko jarduerarako hornikuntza eta kontsumoen eta kostuen kontrola:**
  - Taberna-kafetegiko hornikuntzaren kudeaketa. Taberna-kafetegirako elikagaien, edarien eta gainerako jeneroaren hornikuntza-beharrak kalkulatzeko.
  - Erosketa-zikloa. Etengabeko inbentarioa eta haren balorazioa: izakinak baloratzeko metodoak. Hornitzaileekiko negoziazioa.
  - Jeneroa jasotzea eta biltegitratzea. Lehengaiak ikuskatzea, kontrolatzea, banatzea eta biltegitratzea.
  - Inbentarioren kudeaketa eta kontrola. Dokumentu-erregistroak. Fitxa teknikoak.
- 4. Taberna-kafetegiko zerbitzuko kontsumoen eta kostuen kontrola:**
  - Kontsumoen eta kostuen kontrola. Kostu-motak eta haien definizioa. Lehengaien kostuak kalkulatzeko eta dokumentuak erregistratzeko. Kontsumoen kontrola.
  - Kopa bidezko kontrola. Kostu-kalkuluak.
  - Metodoen aplikazioa. Prezioaren osagaiak. Prezioak finkatzeko metodoak.
- 5. Taberna-kafetegiaren jardueraren kontrol orokorra.**
  - Taberna-kafetegiko ekoizpena eta zerbitzua kontrolatzeko sistemak eta prozesuak konparatzea eta aplikatzea.
  - Taberna-kafetegiaren egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa sinplea. - Ekoizpen-egunkaria eta kutxa-itxiera.
  - Taberna-kafetegian fakturatzeko, kobratzeko, ekoizpen-egunkaria itxeko eta kutxa likidatzeko prozesuak ikuskatzeko metodo errazak aplikatzea.
  - Informazioa antolatzeako sistemak konparatzea eta aplikatzea.
  - Jardueran sortzen den dokumentazioa normalizatzea eta formalizatzea.

6. **Jatetxe-arloko kudeaketa eta kontrol komertziala, informatikoa eta kalitatearena:**
- o Merkataritza-kudeaketa. Prezioen estrategia.
  - o Salmentak. Taberna-kafetegiaren posizionamendua.
  - o Taberna-kafetegian sustatzeko eta iragartzeko ekintzak.
  - o Kalitatearen kudeaketa eta kontrola. Ezaugarri bereziak. Bezeroak duen kalitatearen kontzeptua.
  - o Programa, prozedura eta tresna espezifikoak.
  - o Autokontrol-teknikak.

**C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

**Sartzeko irizpideak**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak.